

## JARDUERA MEMORIA 2018


Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea



## SARRERA

2018an Geoparkean burutu diren ekintzak, 2016-2020 Plan Estrategikoan jasoak daude eta baita 2018ko Gestio Planean ere. Gestio Plana Geoparapeneko Asanblada Orokorrean onartua izan zen, 2018ko otsailaren 22ko aktan jasotzen den bezela.

Hurrengoak dira Geoparkeak dituen lan hildoak, eta hauen arabera aurkezten da zuriketa hau.



2018 errebalida urtea izan da Unesco-ren aldetik. UNESCO Geoparke guztiek lau urtetetik behin errebalida gaintitu behar dute Munduko Geoparkeen Sarean mantendu nahi badute. Euzko Kostaldeko Geoparkea 2010. urtean sartu zen sare honetan eta gaur egun arte, bi aldiz pasa du tramite hau.

Azken ebaluazio honen emaitza 2019ko martxoan emango da jakitera Alemanian ospatuko den Koordinazio Komitearen baitan. Emaitza honen arabera izango da, Munduko Geoparkeen Sareko iraunkortasuna eta Euzko Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea izaten jarraitzea.

## 1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz honen baitan ikerketa, lurraren zientzien gizarteratzea, geodibertsitatea eta ondare natural eta kulturalaren kontserbazioari lotutako helburuei erantzuna ematen zaie.

Ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas-ondarea eta ondare ukiezinak ere garatzen dira atal honetan. Ingurumen hezkuntza ere ardatz honetan lantzen da, Geoparkea interesgune bihurtuko duena publiko orokorrarentzat eta, bereziki, ikasleentzat.

### 1.1 Lurraren Zientzia eta Geologiaren ikerketa eta dibulgazioa

Geoparkearen bokazioa gai konkretu honetan Euskadi mailan aitzindari eta erreferente izatea da. 2018an zehar egin diren ekintzak bokazio hau indartzera datoz.

EHUrekin eta Zaragozako Unibertsitatearekin ondoren ikerketa proiektuak bultzatu dira:

- Jarraipena eta landa azterketan partehartzea ***“Un millón de años a través del Limite Cretácico Paleógeno en Zumaia: Contribución del impacto de Chicxulub y del vulcanismo del Decan al evento de extinción masiva”*** ikerketa, Zaragozako Unibertsitateko Jose Antonio Arz-ek zuzenduta.

Argitalpen zientifikoak eta ekintza akademikoak:

- ***“Spanish achievements and initiatives towards geoconservation: 2018 update”***. M. Monge-Ganuzas<sup>1,9</sup>, A. Salazar<sup>2,9</sup>, N. Herrero<sup>3,9</sup>, F. Guillén-Mondéjar<sup>4,9</sup>, A. Hilario<sup>5,9</sup>, J. Lorente<sup>6,9</sup>, J.M. Mata-Perelló<sup>7,9</sup>, J.C. Utiel<sup>8,9</sup>, E. Díaz-Martínez<sup>2,9</sup>. 9<sup>th</sup> ipuzk Symposium, Chęciny, Poland, 25-28<sup>th</sup> June, 2018
- ***“Moldeo y vaciado de una gran superficie de icnitas del eocenodel flysch de zumaia en el geoparque de la costa vasca (Gipuzkoa)”***. E. Baeza<sup>1</sup>, S. Menéndez<sup>1</sup>, A. Hilario<sup>2</sup>, G. Torre<sup>2</sup>, I. Manterola<sup>3</sup>, Z. Garcia<sup>3</sup>, A. Basurko<sup>3</sup>, M. Azurmendi<sup>3</sup> y G. Zabaleta<sup>4</sup>. N. Vaz y A. A. Sá (eds.). Yacimientos paleontológicos excepcionales en la península Ibérica. Cuadernos del Museo Geominero, nº 27. Instituto Geológico y Minero de España, Madrid. ISBN 978-84-9138-066-5 © Instituto Geológico y Minero de España,
- ***“Accesible geoparks of Iberia: a Challenger to promote geotourism and education for sustainable development”*** Geoheritage aldizkarirako artikuluaren berrikuspena.

- ***Geoparques en Colombia: una estrategia para la aplicación de los objetivos de desarrollo sostenible - caso: Magdalena medio antioqueño*** artikulua berrikuspena, Colombiako geologia buletina, 2018ko ekaina.
- ***“Best-practices and constraints in geopark management: comparative analysis of two Spanish UNESCO Global Geoparks”*** artikulua berrikuspena, Geoheritage aldizkarirako.
- Dokore tesiak defendatzeko epaimahain parte hartzea ***“O Patrimônio geológico e Sitios de Geodiversidade de Florianópolis-SC, Brasil: Estratégias de geoconservação”*** Florianopolis Unibertsitateko gonbidapen bitartez.
- ***“Patrimônio geológico, geoturismo y geoparques”*** ikastaroko irakasle, Brasilgo zerbitzu geologikoak eta Goiasko Unibertsitateak antolatuta.
- ***“Patrimônio geológico, geoturismo y geoparques”*** konferentzia, Santa Catarina Unibertsitatean (Brasil)
- ***“Patrimônio geológico, Geoturismo y Geoparques”*** ikastaroko irakasle, Sobrarbe-Pirineos eta Menendez Pelayo Unibertsitate Internazionalak antolatuta.

Hileroko kolaborazioa Zumaiako BALEIKE aldizkariko artikulua zientifikoetan:

- ***Gure mendien sorrera, arestiko klimaren laborategia***
- ***Artadi kantauriarrak, erizaindegitik pasatu beharreko basoa***
- ***Gelidium corneum, urtutako gelatinaren afera***
- ***Euskal Herriko beste flyschak***

Komunikazio, ikastaro eta konferentzietan parte hartze aktiboa:

- Hitzaldiak UIMP-ek Sobrarbe-Pirineos Geoparkean antolatutako ***“III Curso de Patrimônio Geológico, geoturismo y geoparques”***
- ***“GEOPARKS, SUSTAINABLE REGIONAL DEVELOPMENT AND HEALTHY LIFESTYLES”*** udako ikastaroa, Tras os Montes e Alto Douro Unibertsitateak antolatuta, Vila Realen (Portugal)
- Lanzarote Geoparkeko IV. Jardunaldi irekietan (Geoparkeen foroak antolatuta, Atlantic Geoparks ekimenaren barruan) bi hitzaldirekin parte hartzea:
  - *La Experiencia turística de La Ruta del Flysch*
  - *Charla marco sobre Geoturismo*
- ***Modelo de gestión de Geoparkea hitzaldia*** Ramales de la Victoria (Cantabria), Geoparke izateko bertan prestatzen ari diren hautagaitza laguntza gisa.

- NatureWatch Somiedo **“Aprovechamiento de los recursos geológicos para impulso del conocimiento, la consevación y el turismo de observación de la naturaleza”** Somiedo, 2018ko maiatza.
- Turislan Feria FICOPA, **Geoparque de la Costa Vasca** hitzaldia.
- **Ejemplos de éxito en turismo** mahai inguruan parte hartzea. COETUR, Congreso sobre turismo rural en Arnedillo, la Rioja.
- Alemaniako Bergstrasse-Odenwald Geoparkean bi urtetik behin argitaratzen den aldizkarian parte hartzea, **Euskal Kostaldeko Geoparkea** artikularekin.
- **“Geoparkea, flysch & karst”** hitzaldia, Eibarko Armagintza eskolako Esperientzia Eskolan.
- Eusko Jaurlaritzak Txingudin antolatutako **“Cambio climático y Estuarios”** jardunaldietan partehartzea.
- **“Geoturismo y Comunicación de la geología”** hitzaldia EHUko Geologiaren Dibulgazio jardunaldietan. Bilbo
- **“Comunicación de la geología”** hitzaldia Grutas del Palacio geoparkeko gidarientzako ikastaroan. Uruguay.
- Geolodia 2018ren koordinazioa, edukien diseinua eta gidaritza **“Montañas de Coral y Valles escondidos”**, 2018ko maiatza.

### Geoparkeko gidaritza ikastaroa

Aurten Geoparkean gidari izateko ikastaroaren bigarren edizioa antolatu da, Geoparkean lanean dauden edo lan egiteko asmoa duten gidei formakuntza emateko helburuarekin. Ikastaroan Geoparkeko baliabideak eman dira ezagutaraztera: geologikoak, naturalak eta kulturalak. Hala nola, gida izateko teknikak eta ekintzailtzak gakoak. Ikastaroan 30 pertsona izan ziren onartuak eta hauetatik 23k lortu zuten Geoparkean lan egiteko gida moduan akreditatzea. 33 orduko iraupena izan zuen eta alde teorikoa, praktikoa eta akreditazio saioa izan zituen.



Geoparkean jasotako bititak:

- **Cabo Ortegalean Geoparke kandidatea** osatzeko asmoa duten La Coruña aldundiko ordezkari politikoak
- IGMEKO zuzendaritzak tutorizatzen duen doktoretza, tokiko ekonomian Geoparkeek eragiten duten inpaktu ekonomikoa aztertzen duen. Euskal Kostaldeko Geoparkea da aztertuta izango den lurraldeetako bat.

## 1.2 Ondare arkeologiko eta historiaurreko ondarearen ikerketa eta dibulgazioa

Ondare kultural eta arkeologikoa lehentasunezko gaia da Geoparkearentzat. Deba ibaiaren inguruan arte paleolitikoa gune asko daude eta datozen urteetan udala eta Geoparkeak baliabide hauek balioan jarri nahi ditu, Deba Euskadiko prehistoria erreferente gisa posizionatuz.

Proiektu honek KARSTA ETA GIZAKIA izena hartzen du eta 2018an turistikoki turistikorako lehen pausua eman dira. Proiektu honetarako Aranzadi eta UPV/EHUREN lankidetzak duguz. Bititagarri izateko ezaugarriak dituen haitzulo bat aurkitu duguz eta alde batetik, haitzuloaren barneko esplorazioarekin egin da eta bestetik, Debako ibaiaren inguruko prehistoriaren interpretazio diskurtsiboarekin hasi gara.

Proiektu hau Deba eta Geoparkearentzat estrategikoa den lan ildo baten hasiera da. Urte batzuetan fruitia eman beharko luke ikerketa eta kultur turismo helmugaren ikuspuntutik.

Europako Geoparkeen 2018. astea gai honi buruzko izan da, herritarren artean ondare arkeologikoari buruzko ezagutza sendotzeko.

Ikerketa lanak:

- **“Ermitia (Deba, País Vasco). Reevaluación de la secuencia estratigráfica paleolítica de la excavación antigua, a partir de su industria ósea”** TFM proiektuaren proposamena eta jarraipena. Indusketa zaharraren sekuentzia estratigrafiko paleolitikoaren ebaluazioa, bere **hezur-industriaren** oinarritua Alvaro Arrizabalaga eta José-Miguel Tejero buru dituenak.
- Jose Antonio Mugika doktoreak eta Marian M. De Pancorbo irakasleak egindako **“Estudio sobre la Azagaya Magdaleniense de la cueva de Ermitia”** ikerketa lanaren jarraipena.



### 1.3 – Ingurumen hezkuntza

2018an zehar hainbat ekintza antolatu dira, lidergo paperean edo eta beste eragile batzuekin lankidetzan:

- **“Agiroko Altxorak”** mendi irteera, Itziar Tokiko Entitatearen laguntzaz, 2018ko urtarrilan.
- **Arrateko Sakona** zuhaitz identifikazio tailerra. Materiala eta mendi irteera prestatzea, azkenik, eguraldi txarra dela eta atzeratu egin behar izan zen.
- **Hezeguneen eguna** Debako paduretan, Debanatura elkartearekin elkarlanean. 2018ko otsaila.
- **“Urola Ibaia”** dokumentalaren emanaldia. Abenduan zehar, Zumaiako udalarekin elkarlanean.
- **“Izarraitzeko karsta Geoparkeko harresia”** mendi ibilaldi gidatua Mendien Nazioarteko Eguna ospatzeko, abenduaren 15ean.
- Kantaurialdea filmaren emanaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako **Naturaldia** programaren barruan, urrian.
- Laguntza **Euskadiko Ornitho sariaren** irekieran, Arandai Zientzien Elkartearekin eta beste eragile batzuekin batera.

Naturaren ikasketa programak eskaintzen dituzten Geoparke Agenteak Aprende Natura plataforman izena eman ditugu: <https://www.aprendenaturaleza.org/>.



**IZARRAITZEKO KARSTA,**  
**Geoparkeko harresia**  
 Mendien Nazioarteko Eguna 2018

**ABENDUAK 15, larunbata**  
 09:00etan Zorrozepeko aparkalekuan

**Mendi ibilaldia (4 ordu)**  
 Inma Mugerza eta Aier Hilario geologoak gidatuta  
 Euskaraz


Arropa eta oinetako egokiak eramán

**PLAZA MUGATUAK**  
 Izen ematea:  
[geoparkeall@geoparkea.com](mailto:geoparkeall@geoparkea.com)  
 943192482

- **Geoeskolak**

Zentro bakoitzaren errealitatearekin eta etorkizuneko proposamenak ezagutu ondoren, Geoeskolak Plana egin da. Plan honen helburua Geoparkeen ikastetxeetan zuzendutako hezkuntza-eskaintza ezartzea da, ziklo edo kurtso bakoitzak, edozein herritan kokatuta egonda ere, Geoparkeak sortutako materialak erabiliz gai berdina aztertzea du helburu.

Proiektua DBH 3 eta 4ra zuzendutako lehenengo unitate didaktikoarekin hasi da. Honen prestakuntza Geoparkeak eta beste eragile batzuk burutu dute, hala nola EHU, ingurugelak, etab. Programa diseinatu ondoren, 4 saio pilotu egin ziren proposamena probatzeko eta errealitate didaktikora egokitzeko.



Como cada año, en 2018 se ha colaborado con la UPV/EHU en las Olimpiadas Geológicas. Las personas ganadoras han sido obsequiadas con visitas guiadas gratuitas en el Geoparque.

- **Olinpiada Geologikoak**

Urtero bezala, 2018an EHU-k antolatutako Olinpiadak Geologikoetan parte hartu eta kolaboratu dugu. Irabazleek Geoparkerako bisita gidatuak egiteko sariak jaso dituzte.



## 2. ARDATZA: GEOTURISMOA

### 2.1. Geoparkean geoturismoa sustatzeko produktu eta baliabideak.

Geoparkeak turismo iraunkorraren ereduaren aldeko apostua egiten du eta lurraldea natura turismoari zuzendutako helmuga izateko urratsak eman hasi da, non bai kudeaketa-erakundeak eta bai sektore pribatuak ekoturismoko irizpideak aplikatzen dituzten.

- **Turismo Iraunkorrerako Europako Gutunari buruzko prestakuntza**

Turismo iraunkorra garatzeko bidean, aurten pausu bat gehiago eman da formazio saio baten bitartez. Turismo Iraunkorrerako Europako Gutunari buruzko ikastaroa, estatu mailan gutunaren aholkulari eta ebaluatzaile diren fundazioko langileek eman zuten. Empresa ugarik parte hartu zuten eta feedback-a oso positiboa izan zen.



Geoparkea Euskadiko Ekoturismo klubeko partaide da, naturgune babestuetako beste kudeatzaile, Urbaibai eta Euskadiko beste ekoturismo helmuga batzuekin batera. Sareko hainbat bilera egin dira eta Geoparkeak rol nabarmena izan du bertan. 2018ko otsailaren 1 eta 2an, Euskadiko Ekoturismoaren I. Foroa ospatu zen Gasteizen, Europa Jauregian, bertan Geoparkeak antolakuntzan parte hartu zuen eta baita partaidetzan ere.



- **Kirol ekitaldiekin lankidetzan: Lasturko mendi martxa**

Geoparkearentzat lehentasuna du Geoparkearen barnealdean egiten diren ekintzak bultzatzeko, horrela jendeak Geoparkea kostaldearekin ez ezik barnealdearekin ere identifikatu dezan. Bigarren helburua, toki hauetan dinamika ekonomikoa bultzatzea da. Hori dela eta, 2018an Lasturko Mendi Martxa erakundearen lankidetzarekin lankidetzan aritu gara, ibilbidearen mapa eta bertako interesguneen orria diseinatu eta inprimatu dugu. Ostatu eskaintza ere koordinatu dugu, alojamenduak parte hartzaileentzat eskaintza bereziak egitera bultzatuz; ekin hau Geoparkearen sare sozialetan eta [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)-en eman zen jakitera.



## 2.2. Bisita gidatuen programa.

Bisita gidatuen urteko programa Geoparkeak duen tresna baliagarriena eta baloratuen da. Bisitak egiteko aukera zabal honek, gertuko beste natura eta kultura helmugetatik bereizten gaitu.

2018an, urte osoan zehar antolatu dira bisita gidatuak, Aste Santua eta azaroako zubia bitartean egunero eta neguko hilabeteetan bisitaldiak asteburuetan mantendu dira. Programa proposamena 16 bisita gidatu motaz osatua izan da, eta horietako 1.500 bisita inguru antolatu dira.

19.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute 2018ko bisita gidatuen programa ofizialean, eta bisitari kopurua % 6an handitu da. Zifra hauek ez dituzte talde eta ikastetxeen bisitak barne hartzen, hauek ondoren zehaztuko dira.

	2013		2014		2015		2016		2017		2018	
	TOTAL	%	TOTAL	%	TOTAL	%	TOTAL	%	TOTAL	%	TOTAL	%
Number of visitors	4.099		6.573	60,36%	9.901	50,63%	14.076	42,17%	18.072	28%	19.168	6%

2018. urtean lehen aldiz Geoparkea taldeem merkatua kudeatzen hasi zen, eskoletako taldeak Algorri interpretazio zentrora bideratuz eta Geoparkeak zuzenean zuzenean aisialdiekin lotutako taldeak landuz. Azaroaren 31n bildutako datuen arabera, Algorri Interpretazio Zentroak 17.474 bisitari inguru jaso ditu guztira, eta horietatik 10.205 ikasle izan dira, % 60 inguru. Geoparkeak guztira 93 aisialdiko taldeak kudeatu ditu, 2.925 lagunek egin dituzte talde bisitak.

Jadanik kontsolidatuta dauden bisita gidatuez gain, aurtin bi proposamen berri sartu dira programan.

- **“Enigma Bizia”** euskal kultura eta euskera ezagutarazten duen bisita gidatua da. Guztira 20 bisita gidatu proposatu dira proba pilotu gisa eta harrera ona izan dute bisitarien partetik. 2019an, bisita programa barruan indartuz joango dela espero dugu.



- **"Arrietakua Jauregia"** uztailetik aurrera Mutrikuko Arrietakua Jauregira bisitaldi gidatuak eskaini dira. Eraikin hau XVIII. mendean eraikia izan zen eta bisita honek bere interes arkitektonikoa eta bertako biztanleen historia nabarmentzen ditu; horien artean marinel, zientzialari, ingeniari, etab. Jauregi honen irekiera oso arrakastatsua izan da, 800 pertsona inguruk bisitatu zuten 2018an. Iacio Arrietakua”.



Urtez urte, atzerriko bisitarien hazkundea nabaritu dugu, eta audio gidarien erabilera areagotu da. Ingelesez, frantsesez edo alemanez audiogideko erabiltzaileak % 47,5an handitu dira 2017arekin alderatuz.

**Audiog. hartu duten perts kop.**

2017	2018	%
703	1037	47,50%

Bisita gidatuen ondoren, erreserba-motorrak automatikoki gogobetetze-inkesta bat bidaltzen die bisitako parte hartzaile guztiei. 2018an, 1.246 inkestak jaso ziren (azaroak 31), eta batez besteko nota 8.5ekoa izan zen 10etik. Puntuazio onena erreserba prozesua eta jasotako tratua izan dira.


**MEDIA: 8,5**

- Balorazio orokorra: 8,4
- Erreserba prozesua: 9
- Gidaren azalpenak: 8,8
- Prezioaren egokitasuna: 7,7
- Baliabideen balorazioa: 8,1
- Jasotako tratua: 9,2

### 2.3. Promozioa eta merkaturatzea.

Turismoaren sustapen handiena Basquetour eta San Sebastian Regionen ekintzen bidez gauzatu da, nahiz eta Geoparkea gero eta jarduera gehiago eta kanpaina txikiak egiten ari den bere lurraldea sustatzeko.

- **Fam trip** eta Basquetour y San Sebastian Regionen bidez Debabarrena eta Urola Kosta eskualdeetan antolatu diren programetan parte hartu dugu; izan ere, Geoparkea baliabide estrategikotzat jotzen dute. Aurten, Gipuzkoako turismo sektoreko ordezkariak Geoparkean egon dira San Sebastian Regionek antolatutako **bisita tekniko** baten bitartez.
- **Turismo sustapen azokak:** Basquetour eta San Sebastian regionen bidez egiten da promozioa, hauek joaten diren feria guztietan. Horrez gain, EGNrekin (Europako Geoparkeen Sarea) batera, FITUR eta ITB Berlin standean egon gara. Bilbao Turismok gonbidatuta Aste Santuan Basque Fest-en ere izan ginen, egun horietan Euskadin dauden bisitariak Geoparkera erakartzeko asmoz.



- Gutxien ezagutzen diren edo promozionatzeko zailtasunak dituzten bisita gidatuaren sustapenerako jarduera espezifikoak garatzen dira. Adibidez, 2018an bisitariak deskontuak jaso dituzte gutxien ezagutzen diren bisitak egiteko eta udazken denboraldia bultzatzeko Euskadi Irratian ere publizitate kanpaina egin da.



- Geoparkearen **promoziorako materialak** eguneratuta mantentzen dira. Material hau gure bulego turistikoetan eta eskaturiko azoketan banatzen da. Bisita denboraldiaren hasieran, bisita gidatu programaren liburuxka Euskadiko turismo bulego nagusietara bidaltzen da. Zentzu horretan, San Sebastian Region-eko bulegoa informazio puntu garrantzitsu izaten ari da, Gipuzkoan baliabide estrategikoa baikara.
  - Irudi liburuxka orokorra (4 hizkuntzatan)
  - 2018. urteko bisita gidatuen urteko liburuxka (Eus/Gazt)
  - Bisita gidatuen flyerra atzerritarrentzat (Ingl/Fr/Ale)
  - Geoparkea Mapa (Basquetour bilduma)
  - Geoparkeko mapa geologikoak
  - Euskal kostaldeko mapa geologikoa



GUIDED TOURS  
VISITES GUIDÉES  
TOUREN MIT FÜHRUNG **2018**  
Flysch & Karst

Check departure time.  
Consult the hours of departure.  
Zehazki konstatatu.

- Bisita gidatu programaren **panelak** jarri dira portuetako irteera puntuetan, Algorri interpretazio zentroan eta hiru turismo bulegoen kanpoaldean.
- Bisita gidatuetako gidarientzat material grafikoa egin eta eguneratuta mantentzen da. Karpetak eta fitxak bezalako materiala, urtero eguneratzen hondatuta egoteagatik edo eduki berrien sartzen dugulako diskurtsoan. 2018an argitaratutako material grafiko txikia atzerriko bisitarientzat oso arrakastatsua izan da, audio-gidaren azalpenak jarraitzen laguntzen baitu.



- Geoparkearen sustapen jarduera guztiek kalitate handiko **argazkiak** behar dituzte (liburuxkak, weba, publizitatea ...). Hori dela eta, irudien erosketa txiki bat egin da eta horrez gain, etorkizunean erreportai oso bat egiteko kontrataziorako proposamenak ere jaso dira.
- Kanpotik begiratuta, Geoparkeak **irudi bateratua** transmititzea oso garrantzitsua da. Hori dela eta bisita gidatu eta gida eta turismo bulegoetako informatzaileen artean arropa eta identifikazioa berdina izateko apustuak aurrera jarraitzen du. Alde batetik, turismo bulegoetako langileek alkandora zuria janzen dute eta Geoparkeak emandako identifikazioa txapa daramate beti soinean. Bestalde, gidek Geoparkeko logoak dituzten txalekoak eta bisera dituzte.
- Geoparkeko turismo azpiegitura nagusietan **UNESCOren seinalizazioa** duen plaka bana jarri da; hiru turismo bulegoetan, Algorri Interpretazio Zentroan Nautilus ikasgune geologikoan eta Lasturko aterpetxeko informazio puntuan.
- Mutriku, Deba eta Zumaia **udalerrien sarreretan errepide seinaleak** jarri dira. GFAaren azpiegitura sailaren baimena lortu ondoren, hiru udalerrietarako diseinu bateratu bat egin da eta udalerrien sarreran ezarri ziren seinaleak.



## Merkaturatzea

Geoparkeak merkaturatzeko duen modu nagusia [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) webgunea da, eta urtero online erreserba sistemaren erabilera gora doa. Aurten dagoeneko erreserben guztirakoaren % 77 adierazten du. Hiru turismo bulegoek ere bisita gidatuak saltzen dituzte, 2018an guztizkoaren % 11 izan da. Helburua online salmenta sustatzen jarraitzea da, eta honela bulegoen lan karga arintzea.

"Norte de Sur Incoming" agentziak "Flyscharen ibilbidea" bisita merkatutzen du, Euskadi turismo webgunearen bidez. Salmentak % 10 hazi dira 2017 eta 2018. urteen artean. Equinoccio bidai agentzia eta San Sebastian Region turismo bulegoen bitartez ere bisita guztiaren programa osoa eskaintzen da, bai webgunearen bitartez, bai bulego fisikoetan eta salmentak % 11 igo dira 2017 eta 2018 bitartean.



INFORMACIÓN / BOOKING

 <p>LA RUTA DEL FLYSCH</p> <p>RESERVA YA Desde 25€</p>	 <p>LOS SABORES DEL KARST</p> <p>RESERVA YA Desde 8€</p>	 <p>SALIDA GEOLOGICA</p> <p>RESERVA YA Desde 20€</p>	 <p>NAUTILUS LOS FOSILES DEL FLYSCH</p> <p>RESERVA YA Desde 13€</p>
---	---	--	--

### 3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

Zonalde karstikoa garatzea Geoparkearentzako erronka bat da. Horregatik, barnealdeko eremura bisitariak erakartzen dituzten baliabideak eta proiektuak sustatzen dira.

Dagoen azpiegitura eta interpretazio eskasia ikusita 2018an ondorengo ekintzak egin dira, Geoparkearentzat hain beharrezkoak diren bisitaldirako eta interpretaziorako leku egokiak edukitzeko.

#### 3.1. Ibilbide eta bidezidorren diseinua:

En 2017, y con el objetivo de formar una red geográficamente equilibrada que ayudara a interpretar y entender los principales temas del Geoparque, se realizó un proyecto de Red donde se definen los trazados y los contenidos a interpretar en cada una de las rutas.

Gaur egun, Geoparkean interpretatutako bost geo-ibilbide daude, horietatik lau Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) jarri zituen abian Zumaia-Deba Biotopoko lurretan. 2016an bostgarren ibilbide bat egokitu zen, Olatzeko PR-a, Biotopotik kanpo kokatzen den bakarra, seinaleztapen eta panelen bidezko interpretazioa jarritz. 2017an, Geoparkeko gai garrantzitsuenak ulertu eta interpretatzeko balioko duen sare proiektua garatu zen, ibilbide bakoitza eta hauetan zer kontatuko den definituz.

Aurten, geo-ibilbideen proiektuan lanean jarraitu dugu. Lursailen jabeak identifikatu dira eta lehen kontaktuak egin dira.

#### 3.2 – Interpretaziorako azpiegiturak

Zuzenean Geoparkearen esku ez badago ere, 2018an San Telmo-punta Algorri bidezidorraren egokitzapena egin da eta honek zuzenean eragin digu. Lurzoruaren egokitzapena, landareen landaketa, seinaleztapena eta K/T mugako interpretazio-panela jartzea izan dira egin beharreko lanak. Bigarren fasean, Zumaiako herrigunetik "denboraren bidea" deitu zaion bidezidorra egin da eta ibilbidea eginez, Zumaiako geologiaren historia aipamen garrantzitsuenak ezagutu daitezke.

### 3.3. Ingurumen naturalaren babesa eta kontserbazioa.

**Lurralde zaintza** ondare naturalaren kontserbazioko Ingurumeneko Sailburuordeak babesten duen tresna bat da. 2018an biotopoko lurretan, Elorriagan, heskaien zaharberritzeko lanak egin dira. Horrez gain, Zuhaitz egunean 500 zuhaitz landatu ziren Aldundiko lursailetan, Itziar tokiko Entitatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

GFArekin lankidetzan, LIFE Arcos proiektuaren barruan, Natura 2000 Sarearen eguna ospatu zen Zumaiako Santiago hondartzan.

#### **Boluntarioak eta herritarren zientzia sarea**

Ingurune naturalaren kontserbazioarekin lotutako gaitan herritarrekin lan egitea Geoparkearen sozializazio estrategiaren barruan kokatzen da. 2019an, honako ekintzak burutu ziren:

- Kostaldean garbiketa egiteko Surfrider Fundazioak zuzendutako OSPAR proiektuan parte hartzea
- Mutrikuko portuko itsas hondoen garbiketa Kantauri Garbia elkartearekin.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako udako hondartza garbiketa kanpainan parte hartzea. Zumaia, Deba eta Mutriku hondartzan bildutako hondakinekin musika tresnak sortzeko tailerrak antolatu ziren. Kanpainaren amaieran, "Itsasoaren Soinuak" ekitaldian parte hartu genuen Donostiako Ondarretako hondartzan, non Orkestra Reunonikak kontzertu bat egin zuen tailerretan sortutako musikako tresna horiekin.



## Naturaldia

GFA hezkuntza-bokazioa duen Naturaldia proiektua bultzatzen duen eta proiektuak aurten egoitza berria dauka Geoparkean. 2018an Zumaia, Deba eta Mutriku programatutako ekintza hauen egoitza izan dira, Gipuzkoako beste bost kokapenekin batera. 2018ko azaroan KANTAURIALDEA filma aurkeztu zen Zumaiako Aitamari zineman, Ingurumeneko sailburuaren parte hartzearekin. 2019Ra beste hainbat proiektio aurreikusten dira dagoeneko.

## Geokontserbazioa

**Scolicia-ren erreplikaren** sorkuntza koordinatu eta aurkeztu dugu Algorri Interpretazio zentroan.

Gako diren **iknofosil kontserbazioa kanpaina** burutu da hauen egoera aztertzeko eta jausitako laginen bilketa egin da.





#### 4. ARDATZA: KOMUNIKAZIOA ETA GEOPARKEAREN KUDEAKETA

##### 4.1 - Planifikazioa, antolakuntza eta proiektuaren kudeaketa orokorra.

- LAN TALDEA

2018ko ekainaz geroztik, bisita gidatuak sustatzeko lanpostua finkatu da, kontratu finko bihurtuz.

Pertsonal propioa

- **Bisita gidatuen dinamizatzailea eta merkaturatzaile:** Bisitaldi gidatuen kudeaketaren bilakaerak lan karga areagotu du Geoparkeko turismo bulegoetan. Estrategikoki, bisita gidatuak Geogarapenek kudeatzea erabaki da, hauei ikuspegi zabalagoa emateko eta merkatuaren eskakizun berriei erantzuna emateko. Urtebete eta erdiko lanaren ondoren, agerikoak dira bisita gidatuen kudeaketan lortutako hobekuntzak.
- **Gerentziak** funtzio berdinak mantentzen ditu, Geoparkearen kudeaketa orokorra, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko ordezkari (EGN/GN) eta Espainiako Geoparkeen Batzordekoa (CNEG). Duela hiru urtetik, UNESCOren adituen panelaren parte da eta beste geoparketan ebaluazio-misioak egiten ditu.

Kanpo asistentziak

- **Zuzendaritza zientifkoa** GFAarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez finantziatzen da. Zeregin Nagusia da zientzia eta dibulgazio atala koordinatzea. Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko ordezkaria (EGN/GN) da eta Espainiako Geoparkeen Foroko koordinatzailea izaten jarraitzen du.
- **Komunikazioa eta prentsa-kabinete** zerbitzurako Debegesa Debarreko garapen agentzia azpikontratatu da. Zeregin nagusia Geoparkearen komunikazio orokorra kudeatzea da: prentsaurrekoak, prentsa-oharrak, aurkezpenak, webgunearen eguneratzea, Newsletter edo buletin elektronikoa, publizitatea, etabar.
- **Community managerra** (Sare Sozialetako kudeatzailea) @Geoparkea komunikazioa estrategia zehaztu eta kudeatzen du Facebook, Twitter, Instagram eta YouTube sare sozialen bidez.
- **Ingurumen eta jasagarritasun** arloko koordinatzailearen lana naturgune babestuetan ekimenak bultzatu eta ingurumen hezkuntza dira.
- **Kontabilitatea eta aholkularitza juridikoa** aurrera eramateko orain arteko enpresa berberak kontratatu dira. 2018an, Kontratuen Legea eta Datuen Babeserako Lege Orokorra (DPBLO) izan dira landutako lan hildo nagusiak.



- **Geoparkezaleak** (Geoparkearen entitate laguntzaileak) proiektua garatzeko asistentzia berezia.

Geoparkea erreferente gisa kokatu dago eta horren ondorioz, eskualde, Gipuzkoa eta Autonomi erkidego mailetan hainbat ekitaldi eta lantaldeetan parte hartzen du.

2018an, adibidez, ekitaldi hauetan parte hartu dugu:

- Gipuzkoako turismo mahaia eta Smart lan taldea
- Espainiako Geoparkeen Batzordea, Autonomia Erkidegoko ordezkariarekin batera (Ingurumeneko Zuzendaria). Bilkura hau gutxienez urtean behin egiten da.
- Mutriku Turismo mahaia, udal ordezkari eta turismo sektoreko eragile pribatuekin batera.

#### 4.2 - “Atlantic Geoparks” proiektu europarra - *Interreg arco atlántico programa*

Ondarearen interpretazio teknologiak aplikatuz geoturismoa sustatzeko asmoarekin, Interreg proiektua onartu da beste 12 bazkiderekin batera (horietako 9 geoparkeak dira, bi geoparke hautagai eta Alto Douro y Trasmontes UTAD unibertsitatea, proiektu lider gisa). Proiektu honek 30 hilabeteko iraupena du eta, guztira, 1.946.500 euroko aurrekontua du, %75a EBk finantzatua. Geoparkean kasuan, gainontzeko %25eko finantzaketa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin sinatutako hitzarmenaren bidez finantzatuko da.

2018an zehar, Europa-atlantikoko Geoturismo Ibilbidea eratzeko ekimen ugari burutu dira.



Proiektuaren fase honetan gure zeregina geoparke guztiek parte hartzen duten bideo promozional bat egitea da. Bi bideo egin dira; 3 minutuko bideo azkarra eta dibulgazioan zentratutako 15 minutukoa. Azken detaileak lotzeko dauden arren, barne lortura honetan daude ikusgai: <https://bit.ly/2UTBHpl> a

DEX aholkularia kontratatu dugu proiektuan zehar gidari eta aholkulari lanak egiteko.

2018an zenbait bilera eta ekitaldi egin dira:

- Ekainaren Armorque parke naturalean (Frantzia) jarraipen-bilera egin zen Geoparke hautagai den lurraldeetak batean.
- Abuztuan Donostian, "Itsasoaren soinuak" azoka aprobetxatuz Interreg proiektuaren aurkezpena egin genuen, Surfrider Fundazioaren laguntzarekin.



- Urrian, Lanzarote Geoparkean ospatu zen Interreg proiektuaren aurkezpenean parte hartu genuen ahozko aurkezpenekin.



- Azaroaren 22an, Kantabriako eta Zumaian proiektuaren jarraipen-bilera egin zen eta bertan bazkide guztiak bildu ziren eta inguruan bisita geoturistikoa egin genuen.



#### 4.3 EGN eta UNESCOren arteko harremana.

Nazioarteko sarearen barruan ondo kokatuta egotea gai estrategiko bat da Geoparkearentzat.

2018. urtea errealizatu izan da Geoparkearentzat. Uztailan zehar, UNESCOko bi ebaluatzaileek azken lau urteetan (2014ko errealizadaz geroztik) egindako aurrerapenak egiaztatu zituzten hiru egunetan. 2019ko martxoan, EGNko koordinazio-batzordean zehar jakingo da ebaluazioaren emaitza.



2018. urtean Europako Geoparkeen Sarea hurrengo tokietan izan ditu hitzorduak:

- Karavanke Geoparkean (Austria-Slovenia) 2018ko martxoan Koordinazio bilera egin zen
- Adamello Brenta Geoparkean, munduko koordinazio bilera eta GGNko Munduko Konferentzia, 2018ko irailean.

Konferentzia honetan partaidetza aktiboa izan genuen. Batzorde zientifikoaren partaide izan ginen, koordinazio batzordean parte hartu eta lan talde lanak egiteaz gain. Bi ahozko komunikazio egin ziren:

- *“The great enigma” a new guided tour in the Basque Coast Unesco Global Geopark based on our greatest treasure: basque language, Leire Barriusoren eskutik.*
- *Deep sea trace fossils in the Basque Coast UGG. Conservation strategy in a erosive geological context. When and how should we act? Asier Hilarioren eskutik.*



Aldi berean, ondare ukiezinari buruzko erakusketan parte hartu genuen, jaso harri bat erakutsiz, kultura eta geologiari lotzen zaion elementu kultural honen bitartez.

Hurrengo lan talde hauetan ere partaidetza aktiboa izan genuen:

- WG Foroen koordinatzaileena
- WG Sustainable Development Goals (ODS).
- WG Hezkuntza
- WG Ondare geologikoa
- WG Fossils

GGNko Asanblada Orokorrean izan ginen, munduko beste 140 geoparkeekin batera. Munduko Sareak bultzatuta Marketing estudio batetan parte hartzeko aukeratuak izan ginen, gure marketing eta asare sozialetako lana azalduz.

Geoparkeko bi ordezkari ofizialek ebaluazio misioak egin dituzte. 2018an ebaluatutako geoparkeak hurrengo hauek izan dira:

- Ries Geopark hautagai proiektu berria (Alemania).
- Lushan Geoparkearen ebaluazio misioa. (China).

Urtero ekarpen ekonomikoak egiten dira bai Europako Sareari eta bai Munduko Sareari. Ekarpene ekonomiko honetaz gain, EGNko 16. zbk magazinerako artikulo bat idatzi dugu **“THE BASQUE COAST UNESCO GLOBAL GEOPARK UNVEALS EXACT REPLICA OF A SPECTACULAR ICHNOFOSSIL”** izenburuarekin.

2018ko azaroan **“UNESCOren Amerika Latindarrerako eta Kariberako Geoparkeetako I. ikastaro Trinkoan”** partaidetza.

Geoparkeen hautagaitza berriei aholkularitza:

- Cabo Ortegal Geoparkeko hautagaitza (Cabo Ortegal)
- Serido (Brasil)
- Canions do Sul (Brasil)
- Volcánico del Ruiz (Colombia)
- Toro-toro (Bolivia)
- Cajón del Maipo (Chile)

Nazio arteko beste ekimen batzuk:

- Aegean Unibertsitarentzat “ Irla eta kostaldeak” Unescoren katedrarako laguntza gutuna
- Argazki bidalketa UGG Hateg Country Dinosaurs Time trailerako (Rumania)

#### **Geoparkeen Foro eta Batzordea**

- Urteko Jarduera txostena egin
- GGN ko Aholkularitza Batzordean partaidetza. Plan estrategikoaren ebaluazioa
- Foroko bileren antolakuntza karavanke eta Lanzaroten
- Europako Geoparkeen Astearen prentsaurrekoa Madrilan
- Españako Geoparkeen dokumentalerako dossierra prestatu
- Españako Geoparkeei buruzko inkesta kuantitatiboaren prestaketa.

#### **4.4. Euskal Herriko UNESCO Sareari bultzada (EHUS)**

2018 urtean zehar EHUS sarearen baitan halako hauek egin dira:

- Unescoren Eskola Sarera batu diren Zumaiako bi ikastetxeei laguntza eman
- Europako Ondare Kulturalen urteari buruzko jardunaldian partaidetza, irailaren 28an Punta Begoñan.
- Zumaian, 2018ko azaroan GIH inguruko erakusketa Oxford aretoan
- Bizkaia irratan elkarriketa ezberdinak EHUSeko kide bezala
- 2018ko martxoan EHUS eko IV Topaketa, Albaolan

#### **4.5 Komunikazioa**

ONLINE Komunikazioa



Tanto la web como las redes sociales son la principal herramienta de comunicación de Geoparkea. En 2018 se han gestionado las redes con los siguientes objetivos:  
 Bai web gunea eta bai sare sozialak dira Geoaparkearen komunikazio tresna nagusiak. 2018an hauek izan dira helburuak:

- Geoparkearen online presentzia eta komunikazioa areagotzea.
- Geoparkea markaren kudeaketa sare sozial nagusietan (Facebook, Twitter e Instagram).
- Geoparkearen YouTube kanalaren kudeaketa.
- Geoparkearekin loturiko elkarrekintzak eta elkarrizketak sortu.
- Geoparkea erreferentziatzko erakunde gisa kokatu: zabalkunde geologikoan eta zientifikoan, esperientzia-turismo alorrean eta tokiko garapenean.
- Sare sozialetako trafikoa geoparkea.com-era bideratu.
- Epe ertainean 2.0 komunitate leial bat sustatzea.

Gaur egun 3.604 jarraitzaile dituen komunitate egonkorra daukagu Twitterren eta 4.126 pertsona ingurukoa Facebooken. 2016ko zifrekin alderatuz, %16ko eta %10eko igoera izan dugu. Instagramen dugun jarduera txikiagoa da, jardunbide egokiena hartzeko neurketak egiten ari gara.

Redes Sociales	Followers ganados	% Crecimiento	Followers totales
Twitter 2018	507	16,37	3604
Facebook 2018	397	10,65	4126
Instagram 2018	524	80,86	1172
<b>TOTAL FOLLOWERS</b>			<b>8902</b>

Urtero kudeaketa eta hobekuntza lanak egiten dira webgunean eta bertako erreserba zentralean. [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) webgunea etengabe eguneratzen da, maiz argitaratutako albisteen bitartez. Horrez gain, urtero edukien eguneraketa egiten da eta atal berriak sortzen dira. Denboraldi bakoitzaren hasieran, hobekuntza ugari egiten dira bisita gidatuen atalean eta erreserba prozesuaren hobekuntzan. Sistema gero eta sofistikatuago eta automatizatuago bihurtzen ari da erreserba kantitatea gora doan heinean. Webguneko eduki guztia lau hizkuntzatan dago. 2018an honako ekintzak burutu dira:

- Domeinu aldaketa .eus-era
- Enigma bizia eta Arrietakua Jauregiko bisitak egiteko eduki eta fitxa berriak

- Audio giden erreserba sisteman hobekuntzak
- Erreserba sisteman hobekuntzak
- Jarraian bigarren bisita baterako erreserba egiten duenari deskontu ba eskaini



#### OFF LINE Komunikazioa

Komunikazioa oso garrantzitsua da Geoparkearentzat, bai online egiten dena baita offline ere. Hori dela eta, aholkularitza eman eta komunikazio ekintza nagusiak garatzen dituen asistentzia teknikoa kontratatuta daukagu.

2018. urtean ondorengo ekintzak egin dira arlo honetan:

- 4 e-newsletter
- 38 albiste web gunean
- 25 prentsa ohar
- 2 prentsa deialdi
  - 2018ko irteera gidatuen denboraldi berriaren aurkezpena
  - Iknofosilaren erreplika eta Europako Geoparkeen Astearen aurkezpena
- 25 elkarrizketa irratan
  - Telebistan 11 agerraldi (ETB1, ETB2, TVE-Telenorte, T5, LaSexta, Cuatro, TeleDonosti). Gainera, hamabost egunetik behin agerraldia ETB1eko *Ahoz Aho* programan. 2017an 15 agerraldi egin dira, geologia gai hartuta.
- TV3 Thalassa Programarekin kolaborazioa
- EFE Verde
- Markel Olano Diputatu Nagusiaren harrera ofiziala Unescoko ebaluatzaileei, 2018ko uztailen



Publizitate txertaketak egin dira komunikabide desberdinetan, irratian, prentsa idatzian eta aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta jarduera turistiko gutxien dugun hilabeteetan egin dira:

- Zumaiako Gida
- Radio Euskadi, udazkeneko bisiten promozioa
- Diario Vasco, Flysch Trail

## 5. ARDATZA: LANDA GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

Lan-lerro honi dagokionean, iraunkortasun kontzeptua Geoparkearen jardunarekin osotasunean lotu nahi da.

### 5.1. Lehen sektoreari bultzada

**Geourment saskiak** saltzen dira lurraldeko tokiko ekoizpena bultzatzeko eta Geoparkearen promoziorako. Hornitzaile berberekin jarraitzen da eta hiru turismo bulegoetan saltzen da prezio berean.

Txakolina: Sagarmiña eta Flysch.

Gazta: Goienetxe.

Hegaluzea: Zizzo eta Nardin.

### 5.2. Geoparkezaleak.

Iaz Geoparkezale komunitatea sortzeko lehenengo pausoak eman ziren. Geoparkearentzat proiektu estrategikoa da, Geoparkea gizarteratzeko helburuarekin eginda, herritar, bisitari, elkarte eta beste entitate batzuei partaidetza eta ahotsa emanaz. Horrela irudia eta promozioa biderkatu egiten dira proiektu jasangarriago eta partekatuago bat bihurtuz.

2017an «Entitate laguntzaile» marka sortu zen alojamendu eta zerbitzu turistikoekin enpresentzat, Europako Turismo Jasangarriaren Kartan oinarrituta. 2018an irizpideak betetzen dituzten 25 enpresa azaldu dira kolaboratzaile izateko prest. Guztiekin aurkezpen publiko bat egin zen Itxaspe kanpinean non plakak eta pegatinak banatu ziren eta Geoparkearekiko atxikimendu konpromesu bat sinatu zuten.

2018an enpresa hauentzat formazio saio bat antolatu da eta web gunean atal esklusibo bat sortu da promoziorako. Urte guztian zehar deskontu kode bat izan dute beraien bezeroei, irteera gidatuetan, sistemaren bitartez deskontu bereziak egin ahal izateko.



### 5.3. Europako Geoparkeen Astea.

2018an Europako Geoparkeen astea maiatzaren 23tik ekainaren 10erarte izan zen. Urtero bezela ekitaldien programa etxe bititza guztietako buzoietara iritis zen, 9.000 ale inguru.

Ekitaldi ugari egin ziren jende partaidetza handiarekin. Astearen aurkezpena Zumaiako Algorriko Zentroan egin zen hiru alkateen partaidetzarekin eta ¿Original o réplica? Erakusketaren irekierarekin.



**Maiztaren 23tik ekainaren 10era**

**Maiztatz 23. asteartea**  
Habilde: "El Barroco Industrial" (Bela, desberdinak eta "desberdinak" (geologia))  
Vitor-Gasteiz Egi. Nazioarteko ikasle ordenaren eta kulturaren harrekin.  
Asteartean: 22.00etan, 19.00etan, Olatu antzerki, Zumaiak.

**Maiztatz 25. ostirala**  
"Original o réplica" erakusketaren irekiera.  
Eskorriola 20era eta 10:00etatik 12:00etara.  
Algorri Interpretazio Zentroan, Zumaiak.  
Oraingoan: 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 19:30etara.

**Maiztatz 26. larunbata**  
Aste irakurle Nazioarteko Interpretazio Zentroan, Murrillo, Orotzuegi. 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.

**Maiztatz 27. igandea**  
Aste irakurle Nazioarteko Interpretazio Zentroan, Murrillo, Orotzuegi. 10:00etatik 14:00etara.

**Ekainak 2. ostirala**  
"Nazioarteko geologia Geoparkean" nazioarteko lehiaketako sari banaketa eta "Eskorriola" sarrera jarraitzea.  
18:00etatik 19:30etara, Deltako plaza.

**Ekainak 3. igandea**  
Inbentzio giletua: "Eskorriola Historiaren erakusketak".  
Aste irakurle Nazioarteko Interpretazio Zentroan, Murrillo.  
10:00etatik 13:00etara. Asteartean: Deltako erakusketak.

**Ekainak 5. larunbata**  
Murrillo Teatlo. Bertan erakusketak.  
9:00etatik 14:00etara, 11:00etan, urdin lehiaketa.  
Murrilloko Deltako Plaza.  
Basa herriaren gertakizak Murrilloko portuan.  
10:00etatik 13:00etara.  
Egia giletuaren "Eskorriola" eta herriaren elementu erakusketak.  
Antzerkiak, Konpartu Dantak.

**Ekainak 10. igandea**  
Inbentzio giletua: "Eskorriola" (igandean).  
11:00etatik 12:30etara, Zumaiako Turismo Bulegoan.  
Dian KIPKeta irakurle erakusketak.  
Izen-ematea: www.geoparkea.eus

**Ekainak 11. ostirala**  
Inbentzio giletua: "Nautika, Euzkoaren herria" (igandean).  
10:00etatik 13:00etara, Murrilloko Nautika Interpretazio Zentroan, Murrillo.  
Dian KIPKeta irakurle erakusketak.  
Izen-ematea: www.geoparkea.eus

**Ekainak 13. ostirala**  
Inbentzio giletua: "Bilboaren abarria Deltan" (igandean).  
10:00etatik 13:00etara, Deltako Turismo Bulegoan.  
Dian KIPKeta irakurle erakusketak.  
Izen-ematea: www.geoparkea.eus

**LEIHAZTUA, Algorriko Zentroan**  
"All you want is love."  
"Original o réplica" erakusketaren irekiera eta sari banaketa irakurle.  
www.geoparkea.eus

## GEOTALKS

Geotalkseko bigarren edizioa izan da aurtengoa. Ekimen honek zientzia eta beste disziplina batzuk ustartzen ditu eta honek itxura berritzaile bat ematen dio ekiataldiari. 2018an Zumaiaiko Aita Mari Zinemak “GeoTalks: Misterio en el mar profundo” ekitaldia egin genuen “Volcanes del mar profundo” pelikularen emanaldiaz jarraituta.

Mahai inguruan, Thierry Juteau, Bresteko Unibertsitateko katedradun emeritua eta nazioarteko hainbat errekonozimendu disuena eta Carlos Briones, CSICeko Astrobiologiako Zentroko ikerlaria eta Lurrean bizitzaren jatorriaren ikerketan ezagunetarikoa.



Herritarrei zuzendutako irteera gidatu ezberdinak programatu ziren aste osoan zehar: Esaterako “Sasiolako beste historia”, “Nautilus, flyscheko fosilak”, “Gotikoaren altxorra Deban” eta “Enigma Bizia” Zumaian.

**Marrazki lehiaketa**, publiko gehien parte hartzen duen ekimenetako bat da, aurtengo leloa “Historia aurreko gizakia Geoparkean” izan da eta 500 marrazkitik gora aurkeztu ziren. Sari ezberdinak jaso zituzten, sari nagusia Burgosen asteburu bat familia osoarentzat, Atapuerkako aztarnategira bisita eta Giza eboluzioaren







Aste osoan zehar Nautilus eta Algorri Interpretazio Zentruetara doako sarrera eskaini zen. Ate irekien jarduera honek Geoparkeko baliabideak ezagutzera eman eta ondare natural eta geologikoa herritarrei gerturatzea du helburu.

Asteoko programa guztia Sare sozialen bitartez ezagutzera eman zen. Honetaz gain, Twitter, FB eta Instagramen galdera-erantzunen lehiaketa bat antolatu genuen irteera gidatuen zozketa bat eginez.